

**BASAURIKO UDALAREN GIZARTE-FUNTSAREN HARTZAILE EDO
ONURADUNEI OPTIKAKO MATERIALA HORNITZEKO OPTIKA-ZENTROAK
HAUTATZEA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK**

KLAUSULAK

1.- Xedea.

Agiri honen xedea da Basauriko Udaleko gizarte-funtsen hartzaile eta/edo onuradunei materiala (I. eranskina) hornituko dieten optika-zentroak hautatzeko baldintza arautzaileak finkatzea. I. eranskinak jasotzen ditu aurreikusitako prestazioak.

Zentroek Basaurin egon behar dute (lantokitik hurbil egotearen irizpidearen arabera mugatu da kokapena).

Hartzaile zuzenak hiruherun inguru dira (funtzionarioak eta klase pasiboak), gehi onuradunak (ezkontideak eta seme-alabak, kasu batzuetan). Optikaren alorreko gizarte-funtsaz gozatu ahal izateko, lehenago adierazitako zentroetara jo behar dute, baina zentro horietara joatea hautazkoa da.

Behin optika-zentroak zehaztuta, Basauriko Udalak hitzarmena sinatuko du haiekin, eta, bertan, zerbitzuaren baldintzak arautuko ditu.

Optika-zentroek, hartzaileek hala eskatuta, faktura egin beharko dute bezeroaren izen-abizenekin, zerbitzua eman den datarekin eta eskuratutako objektuaren deskribapenarekin.

2.- Arau erregulatzaileak.

Zentroak hautatzeko prozedura eta osteko hitzarmena agiri honetan jasotako klausulak araututa egongo dira. Honako hauek ere aplikatuko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, kontratazioa arautzen

duten eta aplikatzea dagokion Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak, eta, ordezkio moduan, Zuzenbide Pribatuko arauak. Hala egingo da, gainera, interes publikoari, ordenamendu juridikoari eta administrazio onaren printzipioei arreta jarrita. Lehen aipatutako hitzarmenak, ordea, azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo daude, bertako 6. artikuluaaren arabera.

3.- Gauzatzeko epea.

Kontratua gauzatzeko epea bi urtekoa izango da. Epe hori 2020ko martxoaren 29an hasiko da, edo, bestela, kontratua formalizatzen denean (data hori ostekoa bada).

Balitzko luzapen bi ezartzen dira, bakoitza urtebetekoa. Kontratua luzatzeko, alderdi biek ados egon beharko dute.

4.- Eskaintzak aurkeztea.

Interesdunek Basauriko Udaleko HAZen aurkeztu behar dituzte eskaintzak, eta Giza Baliabideen Atalean eskuratu ahalko dute hautapen-prozedura arautzen duten baldintzei buruzko informazio eta dokumentazioa. Eskaintzak aurkezteko epea amaituko da egoki irizitako komunikabideetan argitaratuko den iragarkian adierazitako datan.

15 egun balioduneko epea egongo da eskaintzak aurkezteko, deialdiari buruzko iragarkia egunkari ofizialetan argitaratzen datatik zenbatzen hasita.

Eskaintzan honako hauek baino ez dira jasoko:

- Establezimenduak dagokion baimena eta titularrak dagokion titulua badutela egiaztatzen duten agiriak.
- Eranskinean agertzen den proposamen-ereduaren arabeko eskaintza ekonomikoa.

- Proiektu teknikoa, non, gutxienez, haxe jaso beharko den:
 - Zentroan lanean ari diren profesionalak, eta beren curriculumak.
 - Lantokia: helbidea eta ezaugarri nagusiak.
 - Zerbitzuen katalogoa.

5.- Gizarte-funtsaren Kontrolerako Batzordearen proposamena.

Gizarte-funtsaren Kontrolerako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu eta negoziatuko ditu, kalitate zein prezio aldetik onenak diren prestazioak lortzeko. Hala egiteko xedatzen du odontologia-, optika-, audiometria eta ortopedia-gastuetarako Gizarte-funtsaren Kontrolerako Batzordearen funtzionamenduari buruzko esku-liburuaren 4. artikulua. Hautatuak izango dira eskaintzak aurkeztu, eta 4. puntuan adierazitako baldintzak betetzen dituzten klinika guztiak.

6.- Hitzarmena formalizatzea.

Gizarte-funtsaren Kontrolerako Batzordeak hautapen-akordioa jakinarazten duen datatik hamabost egun naturaleko epean, hautatutako zentroek Basauriko Udaleria etorri beharko dute, dagokion hitzarmena formalizatzen.

7.- Hautatutako hirugarrenek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Hautatutako hirugarrenek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Udalerian, hitzarmena formalizatu aurretik:

1.- Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen dutenak. Enpresa pertsona juridikoa bada, bere nortasun juridikoa egiaztatuko du Merkataritza Erregistroan (hala badagokio) behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta. Banako enpresariak, berriz, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia

egiaztatua aurkeztu beharko dute, edo, bere kasuan, erregelamenduz horren ordezkodena agiriarena.

2.- Hala dagokionean, ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak.

Beste baten izenean dihardutenen kasuan, horretarako ahalorde nahikoa badutela egiaztatu behar dute, eta beren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia egiaztatu (edo, hala dagokionean, beren ordezkari direnena). Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharko du, salbu eta egintza zehatz baterako ahalordea denean.

3.- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzako obligazioetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak.

Interesdunak egiaztatu beharko du zerga-obligazioak bete dituela, eta, horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Zerga-eskumena duen Estatuko edo bestelako administrazioaren egiaztagiria (Bizkaiaren kasuan, Foru Ogasunarena).
- Ekonomia-jardueren gaineko zergen (EGZ) egunean egoteari buruzko egiaztagiria: indarreko ekitaldiari dagokion alta edo EGZren azken ordainagiria aurkeztu beharko dute, eta, horrekin batera, zerga horretan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere bai.

Gizarte Segurantzarekiko obligazioak bete egin direla behin betiko egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak berak emandako administrazio-ziurtagiria aurkeztuko da (erakunde horrek baimendutako enpresek ere eman ditzakete ziurtagiri horiek).

Dokumentu guztiek jatorrizkoak izan behar dute. Ez da fotokopiarik onartuko, ez bada eskumena duen funtzionarioak horiek jatorrizkoekin erkatu dituela eta jasota utzi duela egokiak direla.

8.- Eskumenak eta jurisdikzioa.

Gizarte-funtsaren Kontrolerako Batzordearen eskumena da hitzarmenak interpretatzea, horiek betetzeak eragin ditzakeen zalantzak argitzea, hitzarmenak aldatzea interes publikoko arrazoiengatik, hitzarmenak indargabetzea eta indargabetze horren ondorioak finkatzea. Hori guztia egingo du, legeetan jasotako mugen barruan, eta horietan adierazitako baldintza eta ondorioekin.

Baldintza horien, edo, hala badagokio, hitzarmenaren interpretaziotik ondorioztatutako kontu guztietarako, interesdunak Udalbatzaren helbideari dagokion administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende geratzen dira, eta uko egiten diote, espresuki, dagokien beste edozein forori.

Gizarte-funtsaren Batzordeak hautatutako kliniken eta eskainitako tarifa eta baldintzen berri emango die funtsaren onuradun guztiei, hitzarmenak formalizatu eta gero.

I. ERANSKINA

Proposamen-eredua.

..... jaunak/andreak
(NANA:; jakinarazpenetarako helbidea:
.....; telefono-zk.:; eta faxa:
.....) bere izenean (edo
jaunaren/andrearen izenean (haren IFK:), zera adierazten du:

1.- Badakiela Basauriko Udalak hautapen-prozedura bati ekin diola, Udalaren Gizarte-funtsaren jasotzaileei optikako materiala hornituko dien optika-zentroa aukeratzeko.

2.- Aztertu dituela, eta, beraz, ezagutzen dituela baldintzen agiria, espedientean dauden gainontzeko dokumentuak eta aplikatu beharreko legezko testuak.

3.- Zera aitortzen duela, bere erantzukizunpean: hitzarmenaren edukia gauzatzeko gaitasun juridikoa eta behar besteko baliabideak badituela, eta hitzarmen horretarako baldintza espezifikoak betetzen dituela. Eta, hautatua izanez gero, adierazitako prestazioa emango duela, onartutako administrazio-baldintzetan eta berak aurkeztutako eskaintzan jasotako baldintza eta betekizunak beteta.

4.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela behean zerrendatutako optika-zerbitzuak emateko, finkatutako prezioetan (zergak barne).

III. ERANSKINA OPTIKAKO PRESTAZIOEN ZERRENDAA (OFTALMOLOGIA-LENTEAK ETA UKIPEN-LENTEAK)		
	PREZIOA	BEZa (hala badagokio)
1.- MONOFOKALAK		
1.1.- ORGANIKOA 1,5, GOGORTUA		
1.2.- ORGANIKOA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
1.3.- ORGANIKOA 1,6, GOGORTUA		
1.4.- ORGANIKOA 1,6, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
1.5.- ORGANIKOA 1,67, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
1.6.- ORGANIKOA 1,74, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
1.7.- MINERALA 1,5		
1.8.- MINERALA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
1.9.- MINERALA 1,7		
1.10.- MINERALA 1,7, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.- PROGRESIBOAK		
2.1.- ORGANIKOA 1,5, GOGORTUA		
2.2.- ORGANIKOA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.3.- ORGANIKOA 1,5, GOGORTU FOTOKROMATIKOA		
2.4.- ORGANIKOA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKO FOTOKROMATIKOA		
2.5.- ORGANIKOA 1,6, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.6.- ORGANIKOA 1,6, ERREFLEXUEN AURKAKO FOTOKROMATIKOA		
2.7.- ORGANIKOA 1,67, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.8.- ORGANIKOA 1,67, ERREFLEXUEN AURKAKO FOTOKROMATIKOA		
2.9.- ORGANIKOA 1,74, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.10.- MINERALA 1,6		
2.11.- MINERALA 1,6, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.12.- LENTE OKUPAZIONALA 1,5, ORGANIKOA ETA ERREFLEXUEN AURKAKOA		
2.13.- LENTE OKUPAZIONALA 1,5, ORGANIKOA ETA ORDENAGAILURAKO IRAGAZKIAREKIN		
3.- BIFOKALAK		
3.1.- ORGANIKOA 1,5, GOGORTUA		
3.2.- ORGANIKOA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
3.3.- MINERALA 1,5		
3.4.- MINERALA 1,5, ERREFLEXUEN AURKAKOA		
3.5.- MINERALA, FOTOKROMATIKOA		
3.6.- ORGANIKOA, FOTOKROMATIKOA		
4.- UKIPEN-LENTEAK		
4.1.- MATERIAL ZURRUNA (GOGORRAK)		
4.2.- MATERIAL ZURRUNA, GASA, IRAGAZKORRAK		
4.3.- MATERIAL BIGUNA, ESFERIKOAK		
4.4.- MATERIAL BIGUNA, TORIKOAK		

5.- ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN-LENTE BIGUNAK		
5.1.- HILABETEKOKAK, ESFERIKOKAK (6 LENTEDUN KUTXA)		
5.2.- HILABETEKOKAK, TORIKOKAK (6 LENTEDUN KUTXA)		
5.3.- EGUNEKOKAK, ESFERIKOKAK (30 LENTEDUN KUTXA)		
5.4.- EGUNEKOKAK, ESFERIKOKAK (90 LENTEDUN KUTXA)		
5.5.- EGUNEKOKAK, TORIKOKAK (30 LENTEDUN KUTXA)		
5.6.- EGUNEKOKAK, TORIKOKAK (90 LENTEDUN KUTXA)		
5.7.- HILABETEKOKAK, PROGRESIBOKAK (6 LENTEDUN KUTXA)		
5.8.- HILABETEKOKAK, TORIKO PROGRESIBOKAK (6 LENTEDUN KUTXA)		
5.9.- EGUNEKOKAK, ESFERIKOKAK, PROGRESIBOKAK (30 LENTEDUN KUTXA)		
5.10.- EGUNEKOKAK, ESFERIKOKAK, PROGRESIBOKAK (90 LENTEDUN KUTXA)		
BEGI BARNEKO LENTEAK		
6.- MONOFOKALAK		
6.1.- BEGI BARNEKO LENTE MONOFOKALA, ALEA		
7.- TRIFOKALAK		
7.1.- BEGI BARNEKO LENTE TRIFOKALA, ALEA		

Tokia, data eta proposamena egiten duenaren sinadura.